



TXIRRITXOLA

18. ZENBAKIA - 1996.EKO AZAROA - BAKIOKO EUSKERA BATZORDEA

EUSKERA BAKION

ATXAKIRIK EZ, MESEDEZ


Esaten dabe: euskerea oso
gatxa dala ikasteko.

Euskerea egiaz maite
dabenek
hori ez deuskue esango.
Langile txarrak atxaki asko
beti dauka lanerako.

Batzuk behingoan ikasten
dabe
ikasi gura dabelako.

Beste batzuk nagiagaitik
itzi ohi dabe geroko.

- ATXAKIRIK EZ MESEDEZ
- EUSKARAREN EGOERA
BAKION
- BAKIOKO TALDE
EZBERDINEKIN
ELKARRIZKETAN
- TXALAPARTAREN NONDIK
NORAKOAN
- QUINTA TORRE 100 URTEZ
BAKION IKUSGARRI
- HERRIKO BERRIAK
- KULTUR ETXEAN
- EMAN EUSKARARI BEREAN
- LEHIAKETA MUNDIALA



Gauza bat orain gogoan hartu
egia haundia dalako.
Gure euskerea behar bagendu
ogi zuria jateko,
haundi ta txiki, zahar eta gazte,
danak leukee ikasiko.

(BAKEA aldizkaritik atara ta
egokituta)

Iniaki MARTIARTU
1996ko dagonilean



AGOTIK IGARRI, BIOTZAK ZER DAUAN EGARRI

EUSKEREAREN EGOEREA BAKION ETORKIZUNARI BEGIRA?

Gure herrian euskereak gaur egun dauan indarra eta osasunaren barri jakiteko gizarte bizitzako arlo guztietara jo behar dogu eta bertan dauan garapena neurtu.

Aurreko urteetan egon dan bilakaerari begiratu behar deutsogu. Arlo batzuetan aurrera egin doguna argi dago, arean da, euskerearen ezagupenari (zenbatek euskeraz egiten dakien) jagokonean. Irakaskuntzako D eta B erduei esker, hain zuzen.

Udalean, oso maila ezbardinetan izan arren, azken urteotan euskera idatzia be erabilten hasi gara. Udal barruko hizkuntza normalizaziorako aurrera oinkada garrantzitsuak eginez.

Badirudi lehen baino euskera gehiago erabilten dala.

Jendearen arteko euskerazko hartuemonek, barriz, beherakada itzela egin dabe. Euskerearen galtzea ez

da Bakion lotu. Oraintsu artean, Bakioko herritar euren arteko hartuemonetarako euskera hutsa erabili izan badabe be, daborduko gazte eta umeak alkarregaz erderaz egiten hasi dira. Dendetan, tabernetan, ...erderaz.

Hainbat egoeratan, baina, herritar euskaldunak erderaz egin beharrean dagoz (osagileagaz, esaterako) eta ezinezkoa jake normaltasun osoan euskeraz bizitea.

Euskerearen galdubide honetan, nagusienak dira gehien, eta ia bakarrak, euskerea erabilterakoan. Euskerearen **igorpena edo transmisinoa eten egin da**. Neurriak hartu ezean, noizonoiz hizkuntza bera ez da belaunaldi batengandik bestearengana igorriko.

Gaur egun ume askok ez dabe etxean euskera ikasi edota egiten. Ez dabe euskera entzuten, eskolan baino. Urteak joan ahalean, euskerearen erabilerea jaisten doa eta ondorioz, euskeraz

egiterakoan erreztasuna galduten dabe. Berba egiteko erreztasuna galdu ezker, euskeraz berba egiteko interesa galduten dabe eta bertan behera itzi egingo dabe. Gatzgatxa izango da horrelan euskerea birreskuratutea.

Bakion euskerearen erabilereari buruzko neurketea egitea beharrezkoa da. Arean da, azterketa soziolinguistikoko zehatza egin behar dogu. Harik eta zabalena egin be. Askoren ustearen aurka, erabilera urria dala eta, hizkuntzea galduteko haginean dagoala agertuko deusku horrek. Bai berbadunen kopuruan bai honeek egiten daben euskera kalitatean. Hara:

*Eskolako ekintzetatik at, 5 eta 14 urte bitarteko umeen artean asko be asko jaisten da erabilerea. Huts izan artean. Baita eskolan bertan jolastorduetan be. Gero eta jokera haundiagoa dabe erderaz bakarrik egiten. Irakasle eta monitoreen kontrolpean ez dagozanetan

erderara joten dabe, gehien-gehienik.

*15 eta 21 urte bitartekoen jarrera guztiz erdalduna da. Euren artean ez dabe euskerarik bape egiten. Ez eta egiteko ardurarik be.

*22tik 30 urtera bitartekoen jokaerea negargarria da. Asko, aita- ama gazteak dira. Nahiz eta euren ume txikiei euskeraz berbaren bakan batzuk egin, euren arteko eta lagunarteko berbaldietan erderaz egiten dabe, ia %100ean. Zeresanik ez ezkondubakoen artean...

*31tik 40ra bitartekoak antzerakoak dira. 35 urtetik gorakoan artean «nahaste» gehiago egiten dabe. Bakan batzuen artean entzuten da euskera hutsean dabilzala.

*41 urtetik gora, zenbat eta adintsuagoak izan, are eta euskera gehiago erabilten dabe. Hemen euskera gehiago entzuten da. Gizonezkoen artean. Andrazkoen artean, barriz, askoz be gitxiago. Honeetan, euskerearen erabilera gitxien-gitxienetan dago.

*51 urtetik gora, orain dala 15 urte artean, entzuten zan euskerearen erabilera normalizatuagoa. Gaur egun, oster, gero eta gitxiago. Inguruak baldintzatuten dauz -erdaldunen, udatiarren

eraginez-, nogaz dagozan, berbetan euskerea ala erdereera erabiliko dabe. Berton be, gizonezkoek erabilten dabe euskera gehiago, andrazkoek baino. Baina moltzo bien arteko alde ez da aurrekoen arteko besteko handia, ez eta hurrik emon be.

Beste aldetik, azken urteotan behintzat, euskereagazko ardurea -helduen artean be, batez be-moteldu eta lasutu egin da. Gaur egun adintsuek euskeraz egin arren, hemendik hamar urtera 30 eta 40 urte bitartekoek euskera gitxiago egingo dabenez, gaur erabilten dabena baino askoz gitxiago erabiliz, urterik urtera jatsiko da erabilera. Holan, apurka-apurka, hil egingo da euskerea Bakion. Neurriak berehalan hartuten ez badira, behinik behin.

Hau dala eta, herritarren sentsibilizazio eta kontzientziazioa behar-beharrezkoak suertatuten jakuz. Baina hau be, ez da nahikoa izango.

Euskerearen alde egiten diran ahaleginak beharrezkoak dira. Arlo batzuetan aurrera egin badogu be, euskereak benetako normalkuntzea lortuteko behar dauazan bultzakada eta indarretik asago gagoz, oraindikarren.

Normalizazioaren bideko inflexio-gunea gaindituteko behar beste bitarteko (dirua, bideak,...) eta, batez be, borondateari behar-beharrezko deritxet.

Bakion euskaldungoa nagusi izanda, oso baldintza baikorrek eta egokiek egon beharko leuke, gure hizkuntzearen erabilera eta zabalpena aurrera erateko. Euskerearen gizarte erabilera eta ezagupena parekatutea lortu beharko geunke, epe ertainera lortu be. Eta erabilera hau bermatuteko neurriak hartu behar doguz, gitxieneko maila hori lortu daikegun. Euskerearen aldeko euskaldunen zintzotasuna eta zindotasuna lortu behar doguz (sendiaren bidez, batez be), belaunaldirik belaunaldiko jarraipenari eusteko. Baina horretarako euskeraz egiteko baldintza egokiak, baikorrak, lagungarriagoak euki behar doguz, nahi ta nahi ez.

Honetan guzti honetan, Bakioko udalak zeresanik haundia euki badauka. Halan egin beie!

*Iniaki MARTIARTU
1996.eko bagilean*

BAKIOKO TALDE EZBERDINEKIN ELKARRIZKETAN

<< ZEIN EUSKALERRI LITZAKE BERE HIZKUNTZA ERE GALTZEN DUENA, EZ AL DAKIZU EUSKARA DELA EUSKALDUN EGITEN GAITUENA>>

- 1) Nola ikusten duzue Oskorrik dioena bere abestian?
- 2) Zuen taldean kasu egiten zaio esaldi honi?
- 3) Talde harremanetan erabiltzen al duzue?
- 4) % zenbat erabiltzen duzue? %10, % 25, %50, %75, %100?
- 5) Zein da arazoa %100 erabiltzeko?
- 6) Bakion euskaraz bizitzeko asko faltatzen zaigula uste dozue?
- 7) Zuen ustez, zeintzuk dira eman behar diren pausuak hau martxan jartzeko?

GAZTEAK I


1) Oso ondo iruditzen zaigu Oskorrik bere abestian esaten duena, herri bakoitzak bere hizkuntza eguki behar duelako eta herri batek hizkuntza galtzen badu, nortasuna eta arima galtzen du.

2) Ez, uste dugu esaldi honi ez zaiola handirik egiten. Alde batetik kontzientziarik ez dugulako, bestetik pentsatzen dugulako erderaz hobeto egin eta elkar hobeto ulertuko dugula.

3) Talde harremanetan oso gutxi egiten dugu, taldean beti dagoelako erdaldunen bat. Baina hau ere ez da guztiz egia, erdaldunik ez dagonean ere erdera egiten dugulako.

4) Euskera %10 -ean bakarrik erabiltzen dugula pentzatzen dugu, lehen esandako arrazoiengatik.

5) Gure ustez, ez dago arazoirik %100 erabiltzeko, baina badirudi automatikoagoa egiten dugula erdera nahiz eta aitzakirik ez izan euskera ez egiteko.



6) Baina, Bakion euskaraz bizitzeko asko falta dela uste dugu. Alde batetik udatiarren ondorio txiki bat dela uste dugu, beste alde batetik euskera egiteko joerarik ez dugulako. Adin guztietako pertsonen artean gutxiago egiten dela uste dugu, batez ere gazteen artean.

7) Herriko euskeraren aldeko ekintzak gehitzea litzateke pauso bat, baina dirua eta jai handiak alde batera utziz.

BAKIOKO ABESBATZA

1) Ondo, abestiak diona egia dela. Nahiz eta jendeak abestiak dioena egia dela jakin ez diotela edo diogula kasurik egiten.

2) Ez zaio behar den beste kasu egiten.

3) Bai, nahiko.

4) %75 a gutxi gora behera.

5) Batetik, gutako asko erderaz hasita dagoelako, eta horren ondorioz batzutan erdarak itreten du.

Bestetik, abeskide batzuk euskeraz ez dakitelako eta honen ondorioz batzutan erderaz egiten da.

6) Bai.

7) Euskeraz pentsatu eta euskeraz egin-egitea.



ITXAS-ALDE DANTZA TALDEA

Itaunketa hau ITXAS-ALDEko 15 eta 27 urteen arteko 18 neska-mutilen artean egin dugu. Hona hemen, bada, eurengandik jasotako erantzunak:

1) Ondo / oso ondo. (Anartz, Leire, Unai, Eider, Saioa, Izaskun, Irune, Aimar, Unai, Idurre, Idoia, Jon, Pedro, Arkaitz, Jon, Unai)

Ondo deritxot. (Gorka)

2) Askorik ez (Anartz, Gorka)

Batzuetan Bai, gehienetaz ez. (Leire, Unai, Jon, Pedro)

Gitxi. Batzuk. (Eider, Saioa, Izaskun, Irune, Aimar)

Ez (Unai, Idurre, Idoia)

Txistik ez. (Unai)

Apurtxu bat (Jon, Arkaitz)

3) Gitxi. (Anartz, Jon, Unai, Arkaitz)

Oso Gitxi (Leire, Unai)

Gitxiegi (Gorka)

Gitxitan (Gorka)

Gure artean ez. (Idurre, Idoia)

Normalean ez. (Pedro, Jon)

Batzuetan bai. (Arkaitz)

Erabiltzen bada, gitxitan. (Unai)

4) %25 ean. (Arkaitz, Anartz)

%10 ean. (Leire, Unai, Eider, Saioa, Izaskun, Irune, Aimar, Gorka, Idurre, Idoia, Jon, Pedro, Unai, Arkaitz, Jon)

%5 ean. (Unai)

5) Batzuk ez dakie eta. (Anartz, Jon, Arkaitz) gu geu gara arazoa. (Leire, Unai, Eider, Saioa, Izaskun, Irune, Aimar)

Ohiturarik eza. (Idurre, Idoia)

Erderaz egiteko erreztasun haundiagoa. (Gorka)

Alperrak garelako. (Arkaitz)

Erderaz egiteko jokera haundiagoa. (Unai)

Euskeraz egiten lotsatu eginten gara. (Jon, Pedro, Unai)

6) Bai / bai asko. (Anartz, Gorka, Idurre, Idoia, Arkaitz, Jon, Pedro, Eider, Saioa, Izaskun, Irune, Aimar)

Hainbat. Gero eta gehiago. (Jon, Unai, Arkaitz)

Ahalegin apur bat egin ezker, ez askorik (Unai)

Bizi ahal gara, baina gu geu gara arazoa. (Leire, Unai)

7) Euskeraz egin behar dogula guk geuk gure buruak kontzientziatu behar doguz. (Leire, Unai, Gorka)

Euskeraz berbetan hasi eta kitu (Eider, Saioa, Izaskun, Irune, Aimar, Idurre, Idoia)

Norberaren borondatean dago (Unai, Jon, Unai, Arkaitz)

Euskeraz berba egitea baino ez (Jon, Pedro)

Euskeraz ez dakienari geuk irakastea. (Arkaitz, Anartz)



ALAITASUNA PILOTA TALDEA



1) Nola ikusten duzue Oskorrik diona bere abestiak?
Behin eta berriz irakurri dugun bezala, Euskalerrria izaten utziko luke, Pais Vasco izatera bideratuz, argi euki behar duguna edo ahaztu egin behar ez duguna zera da, Euskalerrria euskaldunen herria dela (Euskera duenarena beraz)

2) Zuen taldean kasu egiten da esaldi honi?
Bai, bere osotasunez uzte dugu, baina, berezkoa izan delako ta delako, gure izakeran dagoelako, behar bada guk ez dugu erdal eragina hain sakonki jasan ta orduan talde moduan ez dugu Oskorriren "leloa" planteatze.

3) Talde harremanetan erabiltzen ahal duzue?
Bai, noizonoiz izan ezik, txisteran bat egiteko edo ez bada (erderaren erabilera), gure eguneko harremanak euskeraz direla esango genuke.

4) % Zenbat erabiltzen duzue? %10, %25, %50, %75, %100 a? %100 gehienetan.

5) Zein da arazoa %100 erabiltzeko?

Ez dago arazorik.


6) Bakion euskaraz bizitzeko asko faltatzen zaigula uste duzue?
Agian, inoiz lortuko ote dugun izan beharko litzateke galdera. Herri iraunkorra, establea balitz ez logoke arazo haundirik baina, badirudi, asteburuetan ta udan hurbiltzen den jendeagatik mugatuta gaudela.

7) Zuen ustez zeintzuk dira eman behar diren pausoak hau martxan jartzeko?
Gorago aipatu dugun legez, gutxienez 10 hilabeteko, Bakio, herri euskalduna lortzea, Alaitasunakoek ez dugu ezinezkorik ikusten, zenbait herritan ereduak ditugu, baina horretan hasi baino lehen ezinbestekotzat ikusten dugu, nolako herri bat aldarrikatzen ari garenok norberaren autokritika sakon edo sendo batetik hastea, ze, etxean edo etxekoei eskatzen ez badiegu nola joan gaitezke kalekoei eskatzera?

BAKIO KIROL TALDEA

PATXI OREGI
(*Jubenilen Entrenatzailea*)

- 1) Errealitatea da.
- 2) Ez asko, gutxi.
- 3) Erdi - purdika.
- 4) %50, gutxi gora behera.
- 5) Utxitasuna, gehienak euskera badakite.
- 6) Ez, erabiltzea.
- 7) Euskera erabiltzea radikalizatu taldeen artean.




IÑAKI IMATZ
(*Kadete*)

- 1) Egia da.
- 2) Ahal dogun guztia.
- 3) Hainbat, ahalegintzen gara behintzat.
- 4) %75
- 5) Batzuek, bik edo jiruk, ez dakitela ondo.
- 6) Askok ez.
- 7) Lotsa kendu eta euskera erabili kalean.

JULEN URANGA
(*1.go Regionaleko Entrenatzaileak*)

- 1) Ondo ikusten dut, arrazoa du.
- 2) Taldean euskaldunak eta eldardunak daude. Euskaldunak ahalegintzen gara euskaraz egiten, baina sarritan erdera ere erabili behar dugu.
- 3) Bai, hainbat.
- 4) %75
- 5) Ez dakitenak daudelako.
- 6) Ez dut uste, beraneanteak kendu ezkerro besteak nire uztez euskera erabiltzen dute.
- 7) Denak ahalegintzea euskeraz egiten.

TXALAPARTAREN NONDIK NORAKOAK



esanahia ezagutzen saia gaitezen. Bere hasieran aldaketa fonetiko bat dugu, hots, zalaparta edo zaldiparta zena. Aipatu aldaketa dela medio txalaparta bilakatu zen (aldaketa hauek oso normalak ditugu edozein hizkuntzetan. (Esate baterako, "txakur" hitzak "zakur" beharko luke, "txakur", "zakur", hitzaren forma despektiboa izanik baina gaur egunean "txakur" hitzak "perro" esanahia hartu du, "zakurra" forma despektibotzat jotzen delarik). Izan ere zera ikusten dugu: "Txalaparta" formak bi hitz dituela bere barnean, zaldi eta parta, "zaldi" "caballo" dugu, eta "parta" berriz, zarata, habarrots edo trosta. Aurrekoa ikusita, "txalaparta" zera izango genuke: zaldiaren trosta. Esanahiaz aparte, soinuari eta erritmoari erreparatuz, berriro egingo dugu topo zaldiaren trostarekin, takun, takutun, zaldiaren trostaren errepresentazioa direlarik.

Txalapartaren antzeko soinuak beste elementu natural batzutan aurki ditzakegu, hala nolasturitz eta Santi Mamineko leize zuloetan dauden zenbait estalaktita (haiznegar ere deituak) zein estalagmita-motetan eskuez jo eginez. Antzekotasunak antzekotasuna, badago erabateko ezberdintasun bat, txalaparta gizakiak egindako tresna bat da, hots, berez sinbolo bat da, ezer baino lehen errepresentazio bat delarik.

Konturatu bide zaretenez, guztiaren kokka "txalaparta" hitzak zein bere soinuan datza.

Historia-aurreko gizakiak artearen bidez isladatzen zituen bere sinismenak, bere marrazki eta pinturen bidez bereziki; marrazki hoi bidez dakigu nola gizon-emakume hoiak sinismen magiko erligioso bat zuten. Aipatu marrazkietan maiz azaltzen zaigu zaldia; honen arrazoia bikoitza izan daiteke, alde batetik, ehiza, garai haietan bizitzaren garapenerako ezinbesteko iharduera zena, errepresentatutako animalia zer ikusian.

Paleolito-aroan (magdaleniensean zahazki) gizakiak zaldiaren indar eta izpiritua beste bizitarako beharrezkoak zirelako sinismena zuen, sinismena honen arauera, zaldiak sakrifikuak ei zirela pentsa dezakegu, animalien sakrifizioak gizaki haien sinismenen parte bat suposatzen zuelarik.

Gauzak horrela, txalaparta ezin dugu musika-tresna soilizat jo, bere esparrua askoz sakonago eta zabalagoa delako. Sakona diogu,

sinismen mundu mitiko horretatik datorkigulako; zabala, oster, giza-beharretara egokitzen joan delako. Gizartea konplexuago egiten zen neurrian txalapartaren funtzioa zabalagoa zelako. Izan ere, askotan komunikazio-tresna bezala aritu da, mota horretako tresnaren funtzio eta esnahia aztertu beharko delarik. Izan ere txalapartaren soinu eta erritmoek bere kontextuaren araberrako mezuak igorri dituzte, nolako kontextua, halako mezua esamoldeak zehaztuko lukeena. Sinismen erlijioso-magikoekin paralelismo bat aurkitzen dugu, aipatu paralelismo horietan datzalarik: Zaldiak heriotza eta gero, arima eramango zuen, hots, txalaparta zein zaldiaren eginkizuna zerbait eramatea, zerbait igortzea destinu jakin batera izango zelarik.

Txalaparta oso arlo ezberdinetan izan zen erabilia, hala nola, gudan, nekazaritzan, sagardogintzan, auzolanetan edo eta heriotz-erritoetan.

Tresna honen kontextua aldatuz joan zen, marginalitate egoera batera txalaparta baztertua izan zelarik. Bazterkeria honen eragileak erligioak izan ziren, gure herrian, zehatz-meatz katolikoa. Erligio katolikoak bere ideologia eta sinismenak inposatu zituen. Honekin batera, bere elementuak, tresnak, kanpaiak ere, Aldaketa hau, batez ere IX. mendetik aurrera indartu zen.

Txalaparta bazterreko bihurtu zen, bere zentzua eta izaera galduz, zenbait lekutan jai-giroko elementutzat baino ez zelarik gelditu.

Txalapartaren nondik norakoak ezagutu nahi dituenak ez du bide eroso bat aurkituko, honen arrazoia ikerketa mailan ezar idatzirik ez egotean datzalarik trabak traba, ikerketa antropologiko bat egiten saiatu gara, zeinaren ondorioz txalapartaren ikuspegi orokor bat eskuratu dugun.

Aipaturiko ikerketen zenbaitatal bereizi izan ditugu, honako hauek: Txalapartaren jatorria, garapen historikoa, gaur egungo egoera eta bere etorkizuna.

Jatorriaz mintzatu aurretik, honako hau azpimarratu nahi dugu: Txalaparta, mundu mailan, musika-tresnarik interesgarrienetakotzat jo dezakegu; alde batetik, berezkoa duen berezitasunagatik, bestetik, bere inguruan tankerako musika-tresnarik ez izateagatik, haren forma, soinua, erritmoa, jotzeko era, e.a., berezi bereziak ditugu.


Aipaturiko ezaugarriak, oraingo, alde batera utzita "TXALAPARTA" hitza beraren

Txalapartaren dimentsioak zein material klaseak denboraren poderioz aldatu egin dira, gaur eginekoak jatorrizkoak ez direlarik. Garai bateko saskiak, lasto-fardelak edo larruen lekuan egun, zenbait lekutan, eserlekuak hartu dituzte. Aurreko detaile hori historian zehar egindako aldaketa posibleen seinale bat liteke.

Frankismo-garaian, euskal kulturak, orohar errepresio gogorra jasan zuen, hizkuntza, musika eta musika-tresnak debeku-egoeran izan zirelarik. Dena den egoera latz honek izan zuen alderdi positibo bat, jendeak ahal zen neurrian, hizkuntza, musika, dantza eta gainontzeko euskal kultur adierazpenei eutsi egin zion. Egundako hoietan, txalapartak, bere lekua izateaz aparte zor ziztaion omena izan zuen.

Egun, txalapartaren egoera ez da ona, giro isolatu batean bizi da, zenbait nukleotan gorakada bat hartzen ari den arren. Aipatu nukleo hoietan txalapartak oihartzunak gizartearen beste alderdi zabalagoetara hedatuko delako itxaropenak gure kulturaren tresna honen alde lan egiteko adorea digu.

JOSEBA MENTXAKATORRE
eta
MERTXE CARRO

QUINTA-TORRE 100 URTEZ BAKION IKUSGARRI

QUINTA-TORREk 100 urte bete dauz 1896. urtean amaitua izan zanetik. La Habanan etxe handiei QUINTA izena emoten jaken eta TORRE izenaren jatorria oraintxe azalduko dot.

QUINTA-TORREren sustraiak Fernando Villaren erregetzaren garaitik datoz, 1820. urtean inguruan, Bakio herri txiki eta nasaia izan zanetik. Baserri sakabanatu gitxi batzuk, eleizea, Elexpuru eta Hormaza jauregiak baino ez egozan. Herriaren beste erdia, gaur eguneko Bentalde, ez zan haremunez osoturiko haritza bat baino.

Orduko Bakio haretan, Balanda baserrian albiste-barriak egozan. Baserri hau, Juan Bautista Andraka Balandarena zan, bere amarengandik jarauntsia. Etxea bizitza bikoa zan. Baten, Juan Bautista Andraka bizi zan eta bestean, haren alabea Isabel Juan Bautista Barturen

bere senarragaz. Honeen seme-alaben artean bat Maria Bautista Barturen Andraka zan, Balandako etxealabea. Hau 24 urtegez Jose Torre Goirienagaz ezkondu zan eta eukezan seme-alaben artean, bi bikotxak izan ziran, Claudio eta Juan Bautista Torre. (Familia hau Bautistaz beterik egoan, aurkil!)

Danak karlistak izan ziranez kanpora urten behar izan eben. Honeek be, La Habanara joan ziran diru egitera eta 1890. urtean Bakiora bihurtu ziran, diru askogaz bihurtu be. Balanda ondoan etxe handi bat eta QUINTA-TORRE eregi ebezan. Familia arazoak zirala eta, banandu egin ziran. Claudio Balanda etxe handi barriagaz geratu zan eta Juan Bautista QUINTA-TORREgaz. (TORRE izena abizenetik jatorriko etxeari)

QUINTA-TORREk, batetik baeban ibiltoki bat eleizaraino, Ameriketatik ekarritako palmera batez, banbuez, pikondoez, eta abar apainduta. Eta bestetik, arkaziaz beteriko errepedierainoko beste ibiltoki bat. Landare guzti honeek eta baita lorategikoak be Mendigureneko Josetxuk jagoten ebazan.

QUINTA-TORREko bizitza orduko handikiena lakoa zan. Neguan mutilak Etxepinto Hermanoen eskolara joaten ziran, han jan eta etxera, ostera be, arratsaldean etorten ziran. Udan goizez, haritzara joaten ziran, alokatutako zaldiburdi baten eta arratsaldean «tertulian» geratzen ziran, palmerapean, indianoak bailiran. Euren artean gazteleraz egiten eben eta serbitzarietaz eta baserriarrekaz euskeraz.

Bakion baegozan udatiar etxebizitzak eta itsasbedar bainuak be. Lehenengo Luisenen eta gero Arimunen. Luisenen egoten ziran udatiarren artean Zubizarreta sendia izaten zan, hiru semegaz. Bata, Felix, Juan Bautistaren alabea zan Juanitagaz ezkondu zana, QUINTA-TORREko jaube bihurtuz. Honeek bederlatzi seme-alaba euki ebezan. Gerratea biztu zanean (1936-1939) eta militarrek Bakiora heltzean, agintari militarrek QUINTA-TORRE koartel nagusi bihurtu eben, etxeakoak kale gorrian itzita. Felix Zubizarreta eta Juanita Torre Venezuelara (Caracas) aldegin eben euren seme-alabekaz eta QUINTA-TORREa 1949. urtean itzuli ziran. Peli euren semeetariko bat oso gazte hil zan eta Estitxu alabarik gazteena Caracasen jaio zan. Besteak, Jon, Arantza, Mikel, Eli, Ander, Gorka eta Ugutz dira.

Ordutik aurrerako QUINTA-TORREren historia jakin badakizue.

Berbalapikoa

garai= sasoi.
jarauntsi= arbasoengandik ondasunak hartu.
etxalaba= oinordekoa dan alabea.
bihurtu= atzera etorri, itzuli.
eregi= etxeak egin, eraiki.

ANARTZ ORMAZA**1996ko dagonilean**

HERRIKO BERRIAK


BAKIOKO ESKOLA AURRERA DOA

Bakioko Eskolan, aurtengo ikasturtean, jantoki-zerbitzua eskeintzen da lehenengoz. Aspaldian geneukan asmo hau, egi bihurtu da oraingoan.

Otsailean hasi ziren gestioak, gurasoengandik gero eta handiagoa zelako eskaera. Hortik aurrera, pixkanaka emandako pausoak, gaur egun errealitate bat egin dute jantokia. Ez da izan erraza, aldaketak beti baitira penazak, baina dena den eta guraso guztien laguntzari esker, jantokia dago Urkitza Ikastetxean.

Jantokiaren gestioa gurasoen esku dago eta Eskola Zuzendaritza arduratzen da bere martxaz, ikasle-zaintzaile bat dagoelarik janari-enpresak kontratatua. Horrez gain eta Eskola duen toki eta ekipamenduei esker, arratsaldeko klaseetan sartu baino lehen, ikasleek jokuak, telebista eta zenbait ekintza egiteko aukera dute.

Beraz, zerbitzua aurrera doa, umeak pozik daude eta datorren ikasturterako erantzun oraindik hobea espero dugu.



ESKOLAKO GURASO ELKARTEA

ITXAS-ALDEREN BARRIAK

1996. urteko udea joan jaku, eta azken hilabete honei begiradatu bat emoteko ordua da.

ITXAS-ALDE dantza taldeak oso urte lanpetsua izan dau, ekintzez betetakoa, behintzat. Aste Santuan Istanbulera joan ginan; maiatzean, hiru Dantzari Egunetan esku hartu, eta uztailean, Turkia eta Errusiatik dantza talde bana hartu genduzan, guztira 90 pertsona baino gehiago. Uztailaren 30ean, Bentako plazan eskaini euskuen euren herrialde bien folklorea, aitagarria dala, bakiotarrei ikuskizun zoragarria eskaintzeko errusiarren ahaleginak.

Geroago, abuztuaren 4an, euskerearen aldeko ekintzaren barruan, ITXAS-ALDEk be esku hartu eban, udaletxearen aurrean dantza saio txiki bat eginez.

Urtero lez, abuztuaren 15ean, bai goizean eta bai gauean, taldeko dantzari, musikari eta gazte guztiek folklore saio bi eskaini genduzan, urte osoan ikasitakoak erakutsiz. Hurrengo goizean, eta hilaren 22rarte, Italiara joan ginan, Agnoneko Nazinoarteko Folklore Jaialdian dantzatzeri eta baita Erroma ezagutzera be.

Abuztua amaitzeko, Bakioko jaietan be esku hartu genduan, hasikerako kalez-kalekoan dantzatuz eta, taldearentzako diru apur bat atarateko asmotan, jai egun guztietan txozna bat zabalduz be.

Irailean oporrak hatu doguz, eta oraindino ez daukagu zehaztuta datozen hilabeteetako plangintzea, baina argi daukagu, datorren urtean ITXAS-ALDERen 25. urtebetetea dana jakinda, ekintza bereziren bat egin beharko doguna. Asmo horretan, taldearen kondairari buruzko liburutxu bat atarateko itxaropenaz gabiltz. Hori dala eta, ITXAS-ALDEgaz zerikusia euki dabon guztiei dei egiten deutsegu, edo datu, edo argazki edo zeresanik badauke, liburuan agertzeko modukoak, guregana hurreratu daitezkan. Baita urteurrena ospatzeko nonork asmoren bat izan ezkeri be.

Ea danon artean ospakizun polita lortzen dogun!

ITXAS-ALDEK ITALIARA EGINDAKO BIDAIA



Kultur Etxetik

Udazken honetan hainbat jende hurbildu jaku kurtsiloetan parte hartzeko azmoz. Aurrera doazen kurtziloak honexek dira: gimnasia, marrazkigintza, eskulanak, saloi-dantzak, zeramika (hauxe ume txikientzat bakarrik), ingelesa, masaiak eta erromeri dantzak.

Ikasleen aldetik oso ona izan dala esan beharra dago, 90 matrikulatara heldu gara. Hau dala ta Udaletxearen languntzaz hurrengo hiruhilabetetan kurtsilo batzuen prezioa bajatu egingo

da.

Honez gain, jendeak halan eskatu dausku ta, sukaldaritza ikastaroa ere proposatuko da. Parte hartu gura badozue bulegoan emon daitezue izena.

Eta azpimarratzekoa ere zera da: datorren urtarilan eta otsailan bertsolaritzari buruz izango da ikastaroa. Gogotatzen badozue halako txiki bat abuztuan euki genduan. Orduko partaideen aldetik jarraitzeko gogoia ikusita, Amuriza ekarriko dogu barriro kurtsiloa emoteko.

Edozein azalpenetarako edo ta proposamen bat egiteko Kultur Etxean gaituzue.

Dagonilaren 16tik 22ra ITXAS-ALDE tladeko berrogei kidek Italiara egin genduan bidai eder eta aberatsa. Bidai hau Bakion orain dala urte bi egon zan «IL DRAGONI DEL MOLISE» dantza taldeagaz dogun hartuemonaren emoitza izan da.

Talde hau Agnone herrikoa da, Erromatik ekialderantza berrehun bat kilometrorra dagoan herrikoa. Agnone, Iserniako probintzian kokatuta dago eta zazpi mila bizilagun inguru daukaz.

Bertan eta alboko herrietan erakutsi genduan geure folklorea eta gugaz batera Alemania, Togo, Argentina, Georgia, Filipinak eta Italiako bertako dantza taldeak be han izan ziran.

Bidaia autobusez egin genduan ezker, etxerantza gentozala, Tivolin «Villa Adriano» eta «Villa d'Esta» ikusi genduzan eta Erroman egun osoa igaro genduan, bertako artelan ikusgarri eta liluragarriak ikustekotan. Esate baterako, «Fontana de Trevi», Koliseoa, Foro erromatarra, Batikanoa eta abar.

Beraz, orokorrean, ikusi daitekenez, oso bidai aberatsa egin genduan, egunak ondo be ondo aprobetxatuz.

Danok etorri ginan nahiko pozik etxera eta orain, iraileko oporraldia pasatu eta gero, indartsu ekin beharko deutsogu geure lanari, datorren urtean be zeuei euskal dantza ederrak eskaintzeko.

Unai BEITIA (Artza)
ITXAS-ALDEKO dantzaria



1-. Noiz sortu zen lehenengo eskola Bakion? Zein mendetan? Eta noren eskutik?

2-. Noiz sortu zen Etxe Pinto eskola?

3-. Zenbatekoa izan zen 1980.nego Bakioko Jaiak antolatzeke jarri behar izan zen diru kopurua?

4-. 1922/23 urteetan, nor izan zen Bakioko sendagilea?

5-. Bakioko zein bi eraikuntzetan ikus dezakegu argiago Barrokoaren ezanugarriak?

6-. Zenbat diru balio zuen mando batek XVIII. mendean?

7-. Ehuneko zenbat gizon bakiotar ezkondu ziren Bermion XVIII mendean?

8-. Zenbat biztanle zeunden Bakion 1987. urtean?

9-. Asmakizuna:

" Ikatza baino beltzago eta edurra bezain zuria.

Oinik ez dauka, baina guztiz da ibiltaria.

Beragan ez dauka mingainik, baina hitz egiten badaki.

Zer gauza da hau, irakurleak igarriko duena bertatik"

10-. Begira ezazu Txirritxolako lehen aldizkaria. Zein da hirugarren orrialdean agertzen den izenburua?



DENBORAPASAK

U	O	A	D	K	I	R	P	Z	A	I
A	O	L	I	R	O	R	Z	O	K	Z
B	E	A	G	E	N	T	A	O	R	I
A	M	E	E	D	N	L	D	A	E	B
S	L	E	U	L	Z	I	H	A	T	I
A	Z	T	N	I	G	I	D	R	U	G
D	N	D	R	O	E	A	O	A	E	R
M	A	E	T	A	Z	R	Z	A	T	I
K	R	E	O	T	S	N	B	A	T	U
D	R	A	N	E	T	E	O	D	O	S

TXISTEA:

- Ba dakizu pertsona batzuek urik ez diela ematen behiei?
- Ez dakit. Zergaitik ez ie ematen ba?
- Zeren, honela esne - hautza ematen dute.

EUSKARARENTZAKO

PLANGINTZA OROKORRA



MANIFESTALDIA

Bilbon,

Abenduaren 14an



EUSKAL KULTURAREN BATZARREA